



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

---

## OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Bilera mota:** Ohikoa  
**Eguna:** 2021.04.07  
**Ordua:** 18:30tan  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

**Bertaratuak:**

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.

**Bertaratu ez direnak:**

- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIK:**

**1. AURREKO AKTAREN ONESPENA**

2021/03/09ko akta aho batez onartzen da.

**2. BORTZIRIETAKO BERDINTASUN ZERBITZUETARAKO HITZARMENAREN ONESPENA  
ETA UDALEKO ORDEZKARIAREN IZENDAPENA.**

Alkateak eta idazkariak Bortzirietan ezarri nahi den Berdintasun Zerbitzuen hitzarmenaren gaia azaldu dute.

Honi dagokionez, Bortzirietako alkateek 2021eko urtarrilaren 13an egindako bileran erabaki zen behin betiko idaztea udalerrien arteko harremanak arautuko dituen hitzarmena, Berdintasun

Zerbitzua eman eta berdintasun-teknikari bat kontratatu ahal izateko, hori guztia Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 70. artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoaren arabera.

Horrela bada, alkate guztiek bileraren akta sinatu zutela ikusita, idazkariak jakinarazten du gaia Udaletako Osoko Bilkuretan eztabaidatzen hasi daitekeela, hitzarmen horri atxikitzea adosteko. Era berean, idazkariak azaltzen du, hitzarmenean xedatutakoari dagokionez, Udalaren ordezkari bat izendatu beharko litzatekela kudeaketa-mahaian parte har dezan.

Ordezkariaren izendapenari dagokionez, udalkideek gaia eztabaidatzen dute, izan ere batzuen iritziz kudeaketa mahaiko ordezkari guztiak emakumezkoak izan beharko lirateke, eta bertze batzuen ustetan berriz, gizonezkoren bat egon beharko luke, berdintasuna jorratuko duen kudeaketa-mahai bat baita.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

- 1.- Arantzako Udala Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuen hitzarmenari atxikitzea onartzea.
- 2.- Ordezkarri baten izendapena aurrerago aztertzeke uztea, gaia hobekiago hausnartu ondoren izendatzeko.
- 3.- Akordio hau Igantziko Udalari jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

### **3. 5. POLIGONOKO 907 ETA 795 LURZATIEN ARTEKO BIDEAREN IKERKETA ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA.**

Idazkariak azaltzen du 2020ko urriaren 1eko Osoko Bilkuran 7. puntuan hartutako akordioaren harira, BIDERKA enpresak jada egin duela 907 eta 795 lurzatien artean dagoen bidearen ikerketa txostena, honen jabetzaren nondik norakoak argitu ahal izateko.

Aipaturiko txostenak ikerketa espediente bat hastea egokiena izanen zela dio. Hau horrela izanik, idazkariak azaltzen du urriaren 18ko Nafarroako Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 280/1990 Foru Dekretuaren 40. artikuluan xedatutakoa ikusirik, ikerketa espedienteari hasiera emateko Udalaren akordio bidez egin behar dela.

Era berean, ikerketa espedientearen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da eta horren ale bat Arantzako Udalaren iragarki-taulan jarri hamabortz egun baliodunez, espedientearen eraginpeko pertsonak, aipaturiko iragarkiaren jendaurreko epea iragan ondotik, hilabete bateko epean beren eskubiderako egokitzeak jotzen duten guztia Udalari idatziz alegatzeko, hauen oinarri diren agiri guztiekin batera. Hau guztia egin ostean, frogatzea epe bat irekiko da eta ondotik, informazio guztia aztertuta, bidearen jabetza norrena den ebatziko da.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

- 1.- 907 eta 795 lurzatien arteko bidearen jabetzaren inguruko ikerketa espedienteari hasiera ematea.

2.- Ikerketa espedientearen inguruko iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Arantzako Udalaren iragarki taulan argitaratzea.

3.- Ikerketa espedientearen nondik norakoak bidearen inguruko lurzatien jabeei jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

#### **4. RESTAURACIONES GOIHERRI, S.L. ENPRESAREN PROPOSAMENAREN ONESPENA.**

Alkateak eta Eneko Sarrias zinegotziak Restauraciones Goiherri, S.L. enpresak aurkeztutako eraikuntza proposamenaren berri ematen dute. Udalkideek gaiaz eztabaidatzen dute, izan ere, oraindik Goiherri enpresak aurkeztutako proposamenaren inguruan hausnarketa bat egitea beharrezkoa ikusten dute.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- Gaia aurrerago jorratzeko uztea.

#### **5. 1/2021 AURREKONTU ALDAKETA.**

Idazkari – kontu hartzaileak Arantzako Udaleko aurrekontuan egin beharreko aldaketaren berri ematen du, izan ere, ez zegoen argi 2021ean haur-eskola izanen zen edo ez, eta honen inguruan ezusteko gastu bat sortatu da.

Halaber, Arantzako Udalaren 2021 urteko Exekuzio Oinarrien 10.8. puntuan xedatutakoari jarraituz, kreditu bereziak gehitu ahal izanen dira 2021ko aurrekontuan. Horretarako, Osoko Bilkuran hasierako onespena eman beharko zaio planteatu nahi den aldaketari, ondotik hamabortz egun baliodunez jendaurrean jartzeko Udaleko iragarki taulan. Era berean, idazkari – kontu hartzaileak azaltzen du, diruzaintzako gerakinetik finantzatu ahal izateko, aldez aurretik 2020ko kontuak likidatu beharko direla.

Udalbatzak hau jakinik eta aurrekontuan aldaketa egiteko premia ikusirik, aho batez onartu du:

1.- Kreditu berezi bidezko 1/2021 aurrekontu aldaketari onespena ematea.

2.- 4.246'75€ko kreditu igoera gauzatzea Arantzako Udaleko 2021eko aurrekontuen sarrera atalean 1 8700001 partidan "Diruzaintzako gerakina 1/2021" izenarekin, betiere 2020ko kontuak likidatu ostean egingen dena.

3.- 4.246'75€ko gastu bat gauzatzea Arantzako Udaleko 2021eko aurrekontuen irteera atalean 1 3231 22799 partidan "Haur-eskola kudeaketa" izenarekin, betiere 2020ko kontuak likidatu ostean egingen dena.

4.- Akordio hau Arantzako Udalaren iragarki taulan argitaratzea, 15 egun baliodunez.

## **6. KUDEA GO APLIKAZIOA KONTRATATZEKO ONESPENA.**

Arantzako Alkateak Kudea Go! aplikazioaren berri ematen du. Honen helburu nagusia Arantzarrak, bertze herrietara mugitu ahal izateko, aplikazioa duen bertze edonorrekin kontaktuan jartzea dela dio.

Zinegotzi batzuen iritziz, Arantza ez denez pasabideko leku bat APP honen erabilera ez zen behar bezala aprobetxatuko. Bertze batzuen iritziz berriz, aukera hona dela uste dute herritarrei zerbitzu hau emateko. Era berean, denek kostuaren inguruan eztabaidatzen dute, izan ere ez dakite zertara bideratzen den aplikazioaren zerbitzuengatik ordaindu beharreko kopurua, eta informazio gehiago beharko zela diote.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

- 1.- Informazio gehiago eskatzea Kudea Go! aplikazioa eramaten duen elkarteari.
- 2.- Informazioa jaso ostean, Arantzako Udalak APPa kontratatu edo ez hausnartu eta bideratzea.

## **7. LEOTZ UDALERRIAN INSTALATU BEHARREKO PARKE EOLIKOEN ETA PARKE FOTOVOLTAIKOEN PROIEKTUEN AURKAKO MOZIOA.**

Alkateak eta idazkariak Leotz Udalerrian instalatu nahi diren parke eoliko eta fotovoltaikoen berri ematen du. Honen inguruan, Leotzeko Udalak Arantzako Udalari gai honen inguruan egin nahi den parkeen aurkako adierazpena aurkezteko eskatu dio, honela Leotzi babesa eman ahal izateko.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

- 1.- Leotz udalerrian instalatu beharreko parke eoliko eta parke fotovoltaikoen proiektuen aurkako mozioa onestea.
- 2.- Mozioa behar bezala beteta Leotzeko Udalari helaraztea, dagokio ondorioak izan ditzan.

## **8. BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO ESTATUTU ALDAKETAREN ONESPENA.**

Idazkariak Arantzako Udalak jasotako Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Estatutuen 11.3 artikulua aldatzeari buruzko jakinarazpenaren azalpena egiten du. Jakinarazpenarekin batera,

Lurralde Kohesio Sailak egindako txostena bidali zuten, egin nahi den aldaketaren aldeko txostena emanez, hala nola:

*"Udal bakoitzak ordezeko ordezkaria izendatuko du titularrak laneko, osasuneko edo familiako arrazoiengatik Batzorde erabakitzailearen bileretara joatea ezinezkoa dela adierazten duen kasuetarako."*

Honen inguruan, Arantzako Udalaren 2021eko martxoaren 9an egindako Osoko Bilkuraren 2. puntuan Bortzirietako Euskara Mankomunitateak proposatutako 11.3. artikulua aldaketa ez onartzea erabaki zuela azaltzen du idazkariak.

Udalbatzak, gai honen inguruan eztabaidatu eta hausnartzen dut.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

- 1.- 2021eko martxoaren 9an egindako Osoko Bilkuraren 2. puntuan hartutako erabakiak indargabetzea.
- 2.- Bortzirietako Euskara Mankomunitateak proposatutako 11.3. artikulua onestea.
- 3.- Erabaki hau Bortzirietako Euskara Mankomunitateari jakinaraztea.

## **9. ALKATEAREN EBAZPENAK**

36/2021-47/2021 arteko Ebazpenak berretsi egiten dira.

## **10. ESKAERAK ETA GALDERAK**

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe, 21:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

**ALKATEA,**

Dabid Iturria Almandoz



**IDAZKARIA,**

Nagore Madariaga Iriarte

